

# I BHLLIN-BA'RAM (eta 11)

*Orain Ba'ram ondamenean dago, jarraitzen dau James Forest idazleak.*

—Zelan ondatu zan?

—Gure gurasoen Israel'era sartu ziranean, gudariak iruzur egin euskuen. Geuk ikusi genduan gure tresna ta gauza guztiak atera ebezala eta gu erbesteratuta geratzen giñala. Auxe izan zan gure ostatarriak emon euskuen ordaiña!

\* \* \*

*Jerusalen'en egoan Israel'go epaitegira joan giñan eta auzia irabazi be bai, baiña gudarosteari eskatu geuntsonean, ez eben gura izan epaitegiko agindu ori betetu.*

*Bigarrenez be epaitegira jo genduan eta 1951 'n barrero irabazi genduan auzia. Orduan, Ben-Gurion lenengo ministroak erriaren ondarena agindu eban.*

*Gabon-egun goizean bonbakatu eben eta zutunik geratu zana «bulldozers» deritxoan guda-tresnaz zapaldu eben eta toki guztia zelaituta geratu zan.*

\* \* \*

*Zure etxeok etxera ezin zein biurtu jakin ebenean, nora joan zñeen?*

*Galilea'ko Iparraldean dagoan Gish'era. Nire senideak an dagoz oraindiño batzuk, beste asko Ba'ram'en. Emendik bialtzen ninduen Jai*

\* \* \*

—Eta eziketaren ondoren?

*Nazaret'en bigarren maillako Ikastegian. Gero nire goi-gotzaiñak Paris'era bialdu ninduan, abadetzarako gertakizun lez filosofia ta telojia ikastera.*

*1965'ean egin nintzan abade Nazaret'en eta urte batean egin neban*

*lan erri onetan. Gero Jerusalem'era joan nintzan eta Ebertarren Eskola Nagusian Biblia ta Talmud ikasi nebazan. Azkenez Genoba'ra eldu nintzan eta emen urte bat egin neban mundu zabaleko eleizen batzarrean, dotoretza eginez.*

\*



—Ba-daukazu zure umearoko oarpen edo eksperientzirik umeen taldeak zelan erabilten ebezan jakiteko?

—Bai, ba-daukot iñoz aitzu ezin neiken jazoriko bat. Nik amar bat urte nebazan sasoian izango zan. Gish'en lurpean urritizkñaren aria egoan. Goiz baten apurtuta agertu zan eta aren zati bat galdu egin zan. Gudariak zalapartaka etorri eta salatu egin ginduezan umeok. Geu, gurasoak eta aitita-amamak oratu eta famili guztia batu eta auxe esan euskuen onelako irain iguingarri ta lotsa «Ez dozue ezer tarako be balio. Azpikeriz zabilte. Zuen umeak lapurrak dira eta zuek be lapur madarikatuak eta lapurren irakasle».

\* \* \*

*Urtero datoz Israel'era, Lur giza-moltzo aundiak eta ez dira konturatzen nortzuk eta zelan bizi diran emen.*

*Egia da diñostazun ori. Arri, are ta lur santu oneik ikustera etorten dim eta emengoai jaramonik be ez dautsee egiten. Antxiñako basilika ta eleiza nagusiai eta orain egiten diranai emoten dautsee euren astia ta ardurea. Eleiza garaitzaillearen gogorea agertzen dabe arreentzat eta antxiñako gauzentzat. Orretara doa euren lenengotasuna ta on-eritxia.*

*Gu izutzaille edo terrorista lez artzen gaitue eta arabiarrek Israel'en barruan bizi diran «enfants terribles» batzuk baiño ez dira orreintzat.*

\* \* \*

—Eta nortzuk dira emen benetako izutzailleak?

*Ba-zenkie Israel'go egazkiñak Galilea ta Libano gaiñean ikusten diranean zelako ikarea sartzan daben! Oneik euren su-danbadakaz, egun baten biztanle geiago il leikee Palestina'tar gudari guztiak urte osoan baiño.*

*Gu ez gara izan inoz menderatzaille. Gu pozik eta gogotsu bizi izan gara geure lurragaz. Beste erriak izan dira gu beti azpiratu gaituenak. Eta azpiratzaille orreik gero iñoz be ez ziran emen geratu. Ejiptoarrak, Erroma'tarrak, Grezia'tarrak Babilonia'tarrak, Asírra'tarrak, inglandarrak etorri ziran ona baiña guztiek egin dabe iges emendik.*

\* \* \*

*Baiña zuek Palestina'tarrok erri barria, oraintsukoa zaree!*

*Egia. Guk erri indartsua izateko sustrai gitxi daukagu. Sortaldeko erri baten zatia gara, baiña iñok ezin lei esan guk palestindarrok erri bat izateko eskubiderik ez daukagula, emen bertone geure lurpean lez egoteko ta biziteko aukerarik ez jakula emon bear.*

LETONA'k